

Zumaiako herri aldizkaria

2001eko urriak 19

BALEIKE

200 pta.

92. zenb.

goiko plaza

proiektu berria alde zaharrean



Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxes: 943 86 17 42
email: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea

Esther Aizpurua
Eguzki Agirrezabalaga
Antxoka Agirre
Juan Luis Romatet
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Antxoka Agirre
Xabier Aizpurua

Oikialdean orriaren arduraduna

Xabier Aizpurua

Marraskigilea

Jon Manzisidor

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier Aranguren,
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,
Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose
Manuel Gonzalez Aramendi,
Ludoteka, Natur Taldea

Argazkiak

Baleike.
Azalekoa: Dani Carballo

Diseinua eta maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

8 ze berri?
obrak Kultur Etxean



10 elkarrietzeta
Abelin eta Graxian

13 poplitean

17 oikialdean
eon latai

20 kirolak
zakila bira 2001



22 natura
Aitor Leiza eta paradisua

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa
zuri esker



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Udazkena eta instintu biltzailea

Oinarrizko instintuez hitz egitean beti Sharon Stone datorkigu burura, baina gaurkoan beste batez arituko naiz, instintu biltzaileaz, eta gure gizarte "modernoan" ere gudan duen indarrak, udazkenean batik bat.

Ez dut esan nahi instintu harrapatzaileak edo "depredadorea" k indarrak ez duenik, ezta gutxiago ere. Haren indarra ikusteko nahikoa da edozein larunbat gauetan garitu bateko barrara hurbiltzea: nor ez da aritu (edo aritzen) ehizan? Ordu txikietan, batik bat, tragoa aurrean (limoi esprimituarekin faborez). Ehizaren helburua gehienetan katuaren gisakoa gehiago da ordea: sagua harrapatu, utzi, eta jolasean ibili, edo saiatu, behinik behin. Inork esan dezake, zertarako amua jarri arrantzu egin nahi ez bada? Tira, dena hain garbi edukitzea ere...

Baina, gaurko gaira itzulita, udazkena da, eta eguna polita zabaldu denez, han goazela mendi itzultxo bat egitera. Lehenengo aldapa kostata igo ondoren (badaude aldaparik gabeko alternatibak, eskerrak!), sartu gara basoxka batean, eta hantxe ikusiko ditugu gure mendi irteera zeharo aldatuko duten gonbidatuak: masustak, gaztainak, perretxikoak...

Masusta kontua erreza da: hartu eta jan.


Eta gaztainak? Tontokeria dirudi, baina gaztaina artetik pasatzean nor gera daiteke hartu gabe? Eta nahikoa da ale batzuk hartzea gehiago nahi izateko, eta konturatzerako baso osoko azal guztiak zapaldu ditugu, nahiz eta gero zortzi kilo gaztainekin zer egin ezin asmatu; beti dugu Erribera kaleko izkinan gaztaina erreak saltzen egoteko aukera.

Dena den, okerreana perretxikotan hastea da, zeren bat ikusten badugu gehiago nahi baitugu, eta ibilaldi osoan lepoa oker-okere eginda eramango dugu, tortikoliserako zorian, bat-batean onddo edo kuleto dozena bat ikusiko dugulakoan; gure bidelagunak, nazka-nazka eginda gainera. Baina zoritxarrez guztiok ez gara J.J. eta gehienetan orbela eta harriak baino ez ditugu ikusten, eta gehienez ere auskaloides otoñalis aleren bat, batek daki jangarria, kutsakorra edo zer arraio izan daitekeen!

Hala ere, alderdi onak txarrak baino ugariago direnez, aupa!, hartu otarra eta zorroak eta saiatu.



Miriam Romatet



INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

ANA

ESTUDIO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Desagerpenak

1997an, Zumaiako arteari buruzko hitzaldia eman nuen 750. urteurrena ospatzeko antolatu ziren ekintzen barruan.

Bertan, herri txiki baten arte historia kontatzen ahalegindu nintzen, ez bakarrik arte ondarearen zerrenda egiteko asmoarekin, Zumaia zer izan den eta nola gorde nahi dugun jakiteko ere bai.

XIX. mendera iritsi nintzenean, konturatu nintzen ez zegoela gauza handirik kontatzeko, herriko historiak garai hartan eta XX. mendearen hasieran batez ere bi oinarri izan zituelako: alde batetik, industriaren etorrerak oraindik ikus zitezkeen tailer handien aztarnak laga zizkigun; eta, bestetik, udaldien garaiko etxe ederrak gordetzen ziren herriko txoko askotan.

4 urte besterik pasa ez direnean, ezin dira hitzaldi hartan jarritako XIX. eta XX. mendeetako diapositiben adibide interesgarrienak ikusi. Hausnarketarako gaia dela iruditzen zait zergatik desagertu diren horren denbora gutxian herriari berezitasuna ematen zioten elementuak.

Eraikin industrialen artean bi ikur desagertu dira. Amaia plazako albo bat ixten zuen Arbilaga zaku fabrika eta Arbustaingo arranplan zegoen grua zaharra. Biak utzikeria eta borondate faltagatik.

Udaldietako etxeen artean, berriz, bi arkitekto famatuen etxeak desagertu dira urte hauetan. Peña garajearen atzean zegoen Yeregitarren etxea, Aladren arkitektoak diseinatutakoa, eta Gimón arkitekto bizkaitarrak egindako Bidabeazpia etxea.

Beste bat ere desagertu da, nahiz eta kopia itxusi eta gustu txarrekoa egin hotelaren eta talasoterapiaren erabilera emateko. Itzunzelai edo Zelaeneko etxea oso egoera kaskarrean zegoen, baina egindako facsimile kistch eta ingurua nola geratu den ikusita, hobeto zegoen ukitu aurretik. Inguruko interbentzioa penagarria iruditzen zait, dagoen tokia kontuan hartuta, horretarako baimena ematea ere...

bazterrak nahasten

Juan Luis Romatet

30 urte (buaaaaah...!!!)

Datorren hilean, azaroan, 1971. urtean jaiotako zumaiarrek, aurtun 30 urte betetzen dituztenek, 'kintoen' bazkaria izango dute. Ni talde horren barruan sartzen naiz. Aurtun, abenduan, 30 urte bete behar ditut. Zaharra izango naiz. 30 urte izango ditut. Krisia? Sekulakoa. Buaaaaah!

Bai, badakit zuetako askok esango duzuela 30 urte izatea ez dela munduaren akabera. Noski! Ez naiz hain lerdoa! Baina, ostras, ezin esan gaztetxo bat izango naizenik 30 urterekin. Ispiluan begiratzean ez naiz oso zaharra ikusten, baina bai, 30 urte izango ditut laster. Hala dio behintzat NANak. Gainera, aldizkari honen lokalera joaten naizenean depresioa areagotu egiten da. Antxoka alfer zorri horrek 25 urte ditu, eta Epi kabroi horrek 19 urte besterik ez. Eskerrak, behintzat, ni baino zaharxeagoa den jendea badagoen (ez noa izenik esatera, bale Argi?). Badut, oraindik, gazte sentitzeko arrazoiren bat. Egunkarian 'sucesosen' atala irakurtzen dudanean bihotza zertxobait alaitzen zait (hau da zinikoa izatea, hau): "44 urteko gazte batek auto istripu bat izan du". 44 urterekin gaztea? Nik 30 ditut, gaztea naiz! Jaioberri bat!! Baina, ez, gauzak ez dira horrela... zaharra naiz. 30 urte. Depresioa? Sekulakoa, kristorena! 30 urte. Buaaaaah!

Hemendik gutxira etorriko dira beste suntsiketak. Aldekoatarraren etxea izan zen Etxe Ona botako dute eta batzokia egon zen Beheko plazako etxeak ere ez du etorkizun askoz ere hoberik.

Baina guztia desagertu baino lehen jakin beharko dugu zer gorde nahi dugun eta zer ez, zer gauden prest galtzeko eta zer ez. Ez dut uste horren zaila denik aztertzea zer dagoen eta baloratzea, gordetzea merezi duen jakiteko edo aldiz, beste erremediorik ez badago, botatzeko. Bitartean, XIX. mendeko lekukoek desagertzen jarraituko dute inork garrantzi handirik eman gabe eta gure oroimen historikotik mende osoa ezabatu dugula ikusten dugunean, berandu izango da damutzeko.

ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Hasi dira Goiko Plazako lanak

Isil-isilik, ia ohartu gabe, hasi dira Goiko Plaza inguruan azokaren berritze lanak. Urteko lehen hilabeteetan dendariek eta Udaleko ordezkariak hainbat bilera izan zituzten. Udaleko plenotik ere pasatu eta onartu egin zen azokaren berritze proiektua. Orain, ia dena ahaztuta zegoenean, hasi dira lanean Foruen enparantzan kokatutako azoka zaharrean. Lanak Alde Zaharra berpizteko mugimenduen barruan sartzen dira. Lortuko al da berpizte hori?

Eroskiren izenean Donostiako NTD Arkitektoak aurkeztutako proiektua onartu zuen Udalak. Azoka zaharrean egin beharreko lanen proiektua Ricardo Peña alkatearen kalitateko

botoarekin onartu zen. Bozketan berdinketa izan zen: PNV eta PSOEko sei zinegotziek aldeko botoa eman zuten eta EA eta EHko sei zinegotziek aurkakoa. Berdinketa puskatzeko, alkatea kalitateko botoaz baliatu zen.

Arkitektoek egindako proiektua eta lanak amaitu bitartean izango diren gastu guztiak Eroskik ordainduko ditu. Enpresa horrek jaso du azoka zaharraren funtzionamenduaren esleipena. Azoka barruan supermerkatua jartzeko hainbat baldintza bete behar izan ditu Elorrioko enpresak. Horien artean eraikinaren saneamendua eta itxuraldaketa eta arrandun eta baserritarrentzat postu berriak jartzea daude. Bestetik, Eroskik supermerkatu berrian ezingo

du ez arrain ez haragirik saldu, produktu horiek saldaz inguruko dendei lehia egingo bailioke.

Proiektuaren arabera, Udaletxe aldera dagoen fatxadaren hormak bota egingo dira eta arkuak hutsik utzi. Fatxada horretan markesina jarriko da. Eguraldi ona egiten duenean baserri-tarrek beraien salgaiak haren azpian saltzeko aukera izango dute. Eguraldi txarra izanez gero, beren postuak arkupetan jartzeko aukera izango dute, arkuen arteko hutsuneak toldoez estaliz. Toldo horiek, ziur aski, granate kolorekoak izango dira eta azokaren logotipoa izango dute margotuta. Baserritarrek 12 postu izango dituzte beren jeneroa saltzeko, hamar arkupetan eta bi arrandunen postuen alboko beste postu txiki batean.

Arkupetan arrandunentzako bi postu eraikiko dira. Hasiara batean hiru jartzea pentsatuta zegoen, baina txiki samarrak zirenez, soilik bi postu jartzea erabaki da. Orain komunak (eta Udal Artxiboko dokumentu ugari) dauden etxetxoak baserritarrentzako biltokia bihurtuko da. Komun berriak ere jarriko dira bertan.

Baserritar eta arrandunen postuak Udaletxeari begira dagoen fatxadaren inguruan jarriko dira. Azokaren beste azalera guztia Eroskiren supermerkatuak hartuko du.

Eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, aldaketa handiak izango ditu. Arku guztiak mantenduko dira, baina oraingo adreilu edo zementuzko hormen ordeztu, kristalera batzuk jartzeko asmoa dago. Hasiara batean, harri latzezko hormak jartzea pentsatu zen, baina ideia hori ez zen onartu azkenean. Egurrezko leihoak izango dituzte kristalerek, eta itsatsita,

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneako menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua




pegatina moduan, herriko zenbait argazki zahar joango dira. Gauez, barruko argiarekin, irudi hauek nabarmen ikusiko dira. Azokak orain dituen bi sarreretatik bakarra mantenduko da, Foruen enparantzatik hurbilago dagoena. Ate hori erabiliko da Eroskiren supermerkatua sartzeko.

Eraikinaren teilatuan ere izango dira zenbait aldaketa. Teilatuan zenbait loreontzi jarriko dira. Landareen bitartez bizitasuna eman nahi omen zaio eraikinari. Hormetan ere zenbait loreontzi ere zintzilikatuko omen dira eta baita argi gehiago jarri ere.

Hainbat fase

Azokako lanen lehen fasean eraikinaren ingurune guztia hesituko da eta Udaletxearen aurreko fatxada eraldatzen hasiko dira. Horrek ez du esan nahi azokaren funtzionamendua gelditu egingo denik, bertan postua duten baserritar eta arrandunek lanean jarraitu ahal izango dute-eta. Azokara sartzeko, Bonifazio Etxegarai kaletik hurbilen dagoen atea erabili beharko dute Goiko Plazako bezeroek. Adreiluzko horma altxatuko da eta haren atzean arituko dira arrandun eta baserritarrak. Bitartean, azokaren kanpoaldea garbituko dute. Hilabete batean lehen fase amaitutzat ematea espero da.

Lehen fasea amaitu eta berehala, bigarren faseko lanei ekingo diete. Baserritar eta arrandunek jada beraien postuak izango dituzte eraikinaren kanpoaldean. Gauzak horrela, azokaren barruko lanekin hasiko dira. Hirugarren fasean Eroskik bere azpiegitura jarriko du.



Aparkalekuen aldetik, sekulako arazoak sortzen dira Foruen enparantza inguruan. Auto asko eta leku gutxi. Obrek irauten duten denboran, gainera, arazoa areagotu egingo da. Azokaren albo batean dauden aparkalekuen erdia obra beraiek hartuko dute, eta beste erdia saltzaileentzat gordeko da. Hasieran, bizilagunei han ez aparkatzen uztea pentsatzen zen, baina badirudi, edo hala espero da, behintzat, arratsaldez

autoan arkupean aurrean uzteko aukera izango dela. Dirudienez, azoka ordutan, saltzaileek beren auto eta furgonetan Olazabal Idazkaria kalean aparkatzeko aukera izango dute. Hau, hala ere, ez dago guztiz konfirmatuta.

Ikusi edo nabaritzen da zer nolako aldaketa eta saltsa izango den Goiko Plaza inguruan. Onerako izango den? Auskalo. Hala ere, ziur obra hauek zer esana emango dutela. Bestela, adi egon...



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24

Goitik beherako aldaketak Forondan

Kultur Etxea Forondan kokatzeak nahiko arazo eta iskanbila sortu zituen bere garaian. Ez zela toki egokia, txikia zela, etab. Herri honek dituen eskaintza eta eskaera kulturalak direla-eta, egia da espazio aldetik txikia geratu dela. Elbarrituek arazoak dituzte Kultur Etxera joateko, eta zer esanik ez kultur etxe barruan mugitzeko, eskailerak direla-eta. Askotan aipatu da herriko kultur etxea Oxford eraikinera mugitu beharko litzatekeela, baina badirudi ez dela hori Udalaren asmoa, Foronda goitik

behera berritzeko asmoa erakutsi baitu.

Irailaren amaieran onartu ziren aurrekontuetan 20 milioi inguruko partida agertzen zen liburutegia berritzeko. Txikia era zaharkituta geratu da helduen liburutegia. Jasotzen diren liburuak kokatzeko apalak falta dira, eta beste herrietako liburutegiekin parekatuz gero, sekulako hutsuneak ditu. Aipatu digutenez, helduen liburutegia zabaldu egingo da, orain haurren liburutegia dagoen gelara. Liburutegi berrian, oraingo zerbitzuez gain, beste batzuk ere eskainiko dira,

hala nola, bideoteka eta fonoteka. Zerbitzu horien bitartez, liburutegiaren bazkideak pelikula eta diskoak alokatu ahal izango dituzke. Internet zerbitzua jende gehiagorentzat zabalatzeko terminal gehiago jarriko dira. Badirudi Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri nahi dutela; izan ere, beste herri batzuetako liburutegietan hainbat ordenagailu jarri baititu, eta baita interneti buruzko ezaguera handitzeko ikastaro batzuk antolatu ere. Hori posible izango ez balitz, Udalak berak hartuko luke terminal horiek erosi eta jartzearen ardura.

Haurren liburutegia beheko solairuan kokatuko da obrak egin eta gero. Erakusketa gela txikia eta areto gela hartuko ditu liburutegi berriak. 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako liburutegia denez, denei zabaldu nahi diete eskaintza. Txikiek ipuin kontaketan parte hartzeko lekua izango dute, eta helduxeagoek liburu erabilgarriak izango dituzte.

Areto gela orain urte batzuk berri-tutako ganbarara mugituko da. Goiko solairura heltzeko jada ez da beharrezkoa izango eskailera estu horietatik igotzea, igogailua jartzeko asmoa baitago. Igogailua eraikuntzaren kanpoan joango da, baina sarrerak barruan egongo dira.

Hau idazteko unean, Forondako lanen proiektua oraindik onartu edo erabaki gabe dago. Proiektu horiek prestatzeko, badirudi arkitekto zumaiaarrak gonbidatu dituztela. Lanak noiz hasiko diren oraindik ez da erabaki, baina dirudienez, hemendik gutxira hasiko dira. Zailena kultur etxeko ohiko funtzionamendua eta obren zarata eta eragozpenak bateratzea izango da, baina, onerako bada...



Juan Belmonte, 6



ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Foronda leku ona al da Kultur Etxearentzat



Fatima Kaskero
Nere ustez ondo dago. Herriaren gainean dago eta neri gertu-gertu gelditzen zait.



Alex Oliden
Ezin da esan urruti dagoenik. Herri txikietan gaizki ohituta gaude dena gertu edukitzen. Alperkeria eta aitzakia gehiago direla uste dut.



Iñaki Arakistain
Urruti behintzat ez dago. Jendea kojua al da haraino ez iristeko?. Ibiltzia ona da eta sanua.



Nerea Epelde
Neretzat Foronda jutia mendira jutia bezela da. Kultur Etxea bertan ez ikusteak asko egiten du. Parean tokatuko balitz jende gehiago joango litzateke.



*Ez da txistea. Eta ez dauka inongo graziairik.



Isabel Urbina, MªKarmen Unanue eta Jesusa Agirre
Ondo dago! Oso toki ona eta ederra! Gazteentzako behintzat erreza da hareino joatea. Guretzat zailo baina juten gea.

Mari Bego Urkidi
Urruti dago. Askotan haraino ez juteatik... Oxforren jarriko nuke edo Arrangoletan. Gertuo behintzat!

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

Y
I
N
Y
A
N
G
G
Z
A
Z
T
E
E
N
E
R
R
O
P
A

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Once upon a time... Zineklub bat

Hamabost egunean behin, Aita Mari Zinemako pantaila ispilu magiko bihurtzen da eta barrura sartzerako gonbidatzen gaitu, zeluloideko hainbat fantasia bizitzeko.

Hamabostean behin, Ostarrena Zineforumak fotogrametan harrapatutako hainbat sentsazio erakusten dizkigu eta bi ordutan, behintzat, besterenak izanagatik egunen batean gure bizitzetan txertatuko diren istorioekin negar egiten dugu, barre egiten dugu eta konplize sentitzen gara.

Koldo Landaluze

Jakina, ez ohiko bidai agentzia horren atzean hainbat lagun daude, emanaldiaren bi-hiru orduak nondik norakoak izango diren erabakiko dutenak. Halaber, bidai agentzia horren atzean pozez, nekez eta batez ere zinemarekiko maitasunez betetako historia dago.

Abelin Linazisorok eta Graxian Galarragak Zumaia zineforumeko pasadizoak eta oroitzapenak berreskuratu dituzte.

ABELIN: -59. urtean Guraso Elkarteak zinema-aretoa egin nahi zuen, eskolak egiteko dirua biltzeko eta kultura indartzeko. Maitena zinema berritzen ari ziren bitartean, gurasoetako batek, Inaxio Alvarezek, ekimen hartan parte hartzerako gonbidatu ninduen. Elkarteak harremana zeukan Donostiako Novedades zinema zeraman emakume alargunarekin. Zinema hura apaizek babesten zuten. Elkarrizketa haiek zirela-eta, Donostiako zine-klubean parte hartzen zuen abokatu batekin jarri ginen harremanetan, Luis Cristobalekin.

Nolakoa izan zen lehen esperientzia?

A: -Zineklubeko emanaldiak hamabostean behin egitea erabaki

genuen, Maitenan, igandeetan, goizeko 11etan. Garai hartan, Inaxio Alvarez eta biok Zumaia tren geltokira joaten ginen Luis Cristobalen bila eta pelikularekin zerikusia zeukaten zenbait gai eta galdera prestatzen genituen, emanaldiaren ondoren ikusleak galderak egitera bultzatzeko. Izugarritzko arrakasta izan zuen.

Zumaian pelikula botatzea esperientzia aitzindaria izan al zen?

A: -Ez. Gu hasi aurretik, zaletasun handia zegoen herrian, eta bi zinema areto ere bai. Zaletasuna gerra aurretikoa da. Zumaia ohituta zegoen zinema ikustera eta zineforumera joaten zirenak, ohiko emanaldietara joateaz gain, guk botatzen genituen pelikula berezi haiek ere ikusi nahi zituzten eta ikusi ondoren pantailan ikusitakoaz eztabaidatu, gainera.

Nolako pelikulak botatzen zenituzten?

A: -*Romeo, Julieta y las tinieblas*, Jiri Weiss-en pelikula txekoslovakiarra, urte hartako (1959) Zinemaldian Urrezko Maskorra irabazi zuena, Ingmar Bergman-en *El séptimo sello* eta *El manantial de la doncella*, Richard Fleischer-en *Duelo en el barro*, Blake Edwards-en *Días de vino y rosas*. Ia beti pelikula "sakonak" izaten ziren. Ipar Ameriketakoak baztertu gabe, baina beti Ekialdeko pelikulei ematen genien lehentasuna, lehen modan baitzeuden.

***El séptimo sello* pelikula aipatu duzu. Ba al zeneukaten inolako zentsurarik?**

A.: Gogoan dut *El manantial de la doncella* bi muntaia zeuzkala. Batean bortxaketaren eszena zegoen eta bestean ez. Guk Novedades zinematik zetorren bertsioa bota genuen; guri iritsi zitzaigunean, ordea, eszena ospetsu hura aurretik moztuta zegoen, Novedades zinemako emakume on hark bere kontura kentzea erabaki zuelako. Geroago ere antzeko zerbaite gertatu zitzaigun *Anatomía de un asesinatorekin*, Otto Preminger-en pelikularekin, zati handi bat (ia hiru ordu laurdenekoa) falta baitzitzaion.

Denboran aurrera egingo dugu. Aldaketa handiak ekarri zituen garai batean kokatuko gara, zinemaren izugarri eragin

zuen garai batean: 68ko Maiatzean. Nolako eragina izan zuen zineklubean?

A.: Hemen ez zuen eraginik izan. Zumaia benetan astindu zuena euskal mugimendua esnatzea izan zen, 65-66an, eta mugimendu horrek gorantz egin zuen Burgosko epaiketa arte. Egia da, bai, aldaketa handiak izan zirela pelikulen gaitetan, baina bat zetozen hemen bizitzen ari ginena-rekin.

Oroitzapenen albumaren lehen bobina bukatzen ari da eta horrekin batera amaitu zen zineforumaren lehen etapa.

A.: 59-60ko denboraldiak 63-64 arte iraun zuen. 64an, ni soldadutzara joatearekin batera, etenaldia izan zen eta Graxian eta gainontzekoak etorri arte geldirik egon zen.

GRAXIAN: Euskal kulturaren berpizkunde garai hartan nik hemezortzi urte neuzkan eta Xabier Alvarezek eta Xabier Agirrek esan zidaten elkarte berri bat sortzekotan zebiltzala, Zumaiaiko Herri Batzokia izenekoa, kultur eta kirol kezka batzuen inguruan hainbat ekimenekin.

"Batzokia" izenaz baliatuta, PNVtik gertuko hainbat sektoretan eragin nahi zuten; elkarteak ahalik eta fronte gehienetara iritsi nahi zuen. Xabier Alvarezek komentatu zidan zinema-rekin zerikusia zeukan frontea ere sartzekotan zirela eta, horrela, lauzpabost lagun elkartu ginen. Amaia

zinema hiltzorian zegoen eta guraso elkartearekin harreman batzuen ondoren, etapa berriari ekin genion. Etapa horretan baliabide ekonomiko urriak izatea oztopo handia izan zen.

Nola gainditu zenituzten oztopo haiek?

G.: 73an dirua lortzeko lehen ahalegina egin genuen. Nola? Aurretik Amaia zineman larunbatean eta igandean botatako pelikula komertziala ematen genuen ostegunetan. Lehenengo pelikula hura *Frenesí* izan zen, Alfred Hitchcock-ena. Arte y Ensayoko zirkuituan zebiltzan filmak ezin genituen lortu. Horrela, oso pelikula komertzialak lor genitzakeen, baina balio artistiko handikoak. Hainbat film on izan genituen, adibidez *Yo vigilo el camino*, John Frankenheimer-ena.

Garai hartan ere eusten al zenioten zineforumen dinamika klasikoari?

G.: -Bai, filmak Luis Carlos Eizagirrek eta biok aurkezten genituen, eta gero, solasaldia baldin bazegoen, luzatu egiten genuen.

Eta jendeak nola erantzuten zuen?

G.: -Denetarik zegoen: batzuetan egun zoriontsuak, aretoa beteta zegoelako, eta beste batzuetan ia-ia desastre hutsa. Ikusle gehiago gerturatzeko asmoz zinema asteak antolatzen saiatzen ginen. Pentsa: urte batean, western-en, gerra pelikulen eta



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067



ALBAITARITZA
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunak: 8:30 - 10

Larrialdia
- 24 ordu
- zeure etxean

Ohizko tratamenduez gain:

CORO PRIETO
Esteticista

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK



zinema beltzaren zikloak antolatzen ere hasi ginen.

Atzera begiratuta, nola ikusten duzu esperientzia hura?

G.- Oso positiboa. Orain, hura guztia gogoratzen dudanean, gaur egun, zine-forumean tartean sartuta ez nagoela, agian gehien eskertzen dudana da zinemara joan eta lasai esertzea, zenbat jende etorriko den kezkatu beharrik gabe. Etengabeko sufri-mendua zen, beti pelikula ordaintzeko adina diru aterako genuen ala ez pentsatzen...

Eta une gogoangarri bat?

G.- Francis Ford Coppolaren *Apocalypse Now* bota genuen eguna. Ateak itxi behar izan genituen, ez baitzen jende gehiago sartzen. Inoiz ez dut horrelakorik ezagutu. Jendea elkarren gainean zegoen pasilloetan, aretoan ez zegoen-eta lekuri ikusle-entzat. Oso une berezia izan zen.

Halaber, oso berezia izan zen Kaiolakoa, gaur egun Aita Mari taberna dagoen lekuan 16 mm-ko pelikulak ikusten genituenekoa. Proiektorea atzealdean jartzen genuen eta pelikula mordoa ikusten genuen, Frantziako enbaxadatik ekarriak. Film interesgarriak ziren, baina oso ikusle gutxirentzat. Oso giro atsegina zegoen. Haren inguruan, Joxean Agirrek artikulua idatzi zuen "Egin"en, Zumaian pelikulak taberna batean ikusi behar genituela esanez; orduan, tabernaren jabeak adierazi zigun agian norbaitek pentsa zezakeela taberna hura iraultzaileen txokoa zela eta ez zigun gehiago utzi. Oso dibertigarria zen. Kafea, kopa, purua eta zinema.

Ba al daukazue zorrik inoiz bota ezin izan duzuen pelikularen batekin?

G.- Zumaian inoiz ez da ikusi *Jesucristo Superstar*. Guraso Elkartearen zegoen eta eragin handia

zeukan jaun batek esan zuen pelikula hori ez zela botako Zumaian, eta prest zegoen baita alokairua ordaintzeko ere, ez botatzearren.

Zinemak oraindik ere magia al dauka?

G.- Hori da ni, behintzat, gehien emozionatzen nauen gauzetako bat. Ohiko zirkuitu komertzialean ikusten ez diren filmak pantaila handian ikustea. Truffaut-en pelikulak ikustea, adibidez, *Los 400 golpes* edo *Fahrenheit 451*, Kurosawa eta Buñuel. Pelikula horiek gela ilunean ikusten jarraitu nahiko nuke.

Apocalypse Now bota genuenean, ateak itxi behar izan genituen, ez baitzen jende gehiago sartzen

A.- Pena da. Badirudi pelikula klasiko horiek Zumaian erakarpen handirik ez daukatela. Hirugarren etapa honetan, urtean behin, behintzat, film zoragarri horietakoren bat botatzen saiatu gara, baina *El tercer hombre* bota genuenean izan ezik, gainerakoetan erantzuna ez da izan guk nahi adinakoa.

Oroitzapenak pilatuz doaz, tituluak, pasadizoak, eskasia ekonomikoak... Material horrekin bigarren zatia ere egitea izango genuke (bigarren zatiak inoiz -?- onak izan ez badira ere). Baina ikuskizunak aurrera darrai eta lagun batzuek 59. urtean hasitako lanari eusten diote, hirugarren etapan, hamabost egunean gozatzen dugun emanaldiaren bidez. Baina hori beste historia batekoa da. Horregatik, erreportaje honetan, Federico Felli-niren filmetan bezala, ez da azalduko AMAIERA hitza.



Erribera kalea Tel. 943 861523



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



n l t



1951ko uzta, mende erdi berriketa gai

Urriaren 6an izan zuten zita. Zita txiki baina berezia. Izan ere, egun horretan bazkalordurako elkartu ziren Oikian 1951. urtean jaiotakoak. Guztiek ere aurtan mende erdia beteko dute eta horren aitzakian bazkaria egitea bururatu zitzairen, berriro elkartu eta kontu batzuk esateko. Herriari dagokion moduko uzta izan zen 1951koa, txikia baina aberatsa, zazpi lagunek osatua, hain zuzen ere: Jose Luis, Arantxa, Miel, M^a Angeles, Joan Joxe, Inaxio eta Koro.

Egia esan, Oikian ez da ohiturarik horrelako bazkaririk egiteko, alegia, urte berean jaiotako guztiak mahaiaren bueltan elkartzeko. Izan ere, herri handiagoetan urte berekoak koadrila berean biltzen dira gehienetan, baina hemen urte berean jaiotakoak gutxi izatean (hauen kasuan zazpi), jendea beste adinetako jendearekin biltzen da. Horrela,

koadrila berean bost edo sei adin ezberdinetako lagunak topa daitezke.

Itzul gaitezen, ordea, bazkarira, beraien garaitik majo aldatu den eskola aurrean argazkia atera ondoren, beraien ume garaiko eta ondorengo kontuak erreparasatzen hasi ziren. Guztiak ere Oikiako eskolan ikasiak dira, eskola frankista zegoeneko garaian ikasiak, hain zuzen ere. Eskolako Angelita maistra zorrotza makina bat aldiz ekarriko zuten gogora, baita hari tranpa egiteko erabilitako moduak ere. Umetan esatera ausartzen ez ziren gauzak heldutasunak ematen duen patxadaz plazaratuaz; mende erdian isilpean egondako sekretuak aireratuaz...

Pasatako 50 urte hauetan bazkari-tarako elkartzen diren lehenbiziko aldia dela jakinda, ez da harritzekoa gaueko ordu txikiak arte elkarrekin berriketan aritzea. Urte askotarako.

Z K M Z U

Haunditzen, haunditzen

Buruan ditudan ileak adina alditan entzun izan diot Getariako osaba arrantzaleari "Oikian etzion ize!" esaldia, adar jotze ugari ere jasan behar izan ditugu herritik kanpo ezagutzen joan garen lagun eta ezagunengandik. Baina azkenaldian gauzak zeharo aldatzen ari direla esango nuke: lasaitasun bila ote datoz?, beste lekuetan baino etxebizitza merkeagoak al daude gure herrian?, edo entzun ditugun guztiak entzun arren, gustuko ote dute gure "herri txiki eta aspergarria"?

Ez dakit arrazoia zein izango den, baina egia da pixkanaka-pixkanaka guregana gerturatzen ari direla. Ez nuen sekula pentsatuko anbulantzia bat herriko plazan aparkatuta ikusiko nuenik, ez eta eskolako atsedenaldi garaian beltzaranak beste umeekin jolasten ikusterik, filipin-darrak plazako kabinatik deika, bikote gazteak txakurrarekin paseatzen, etab. Jada esan daiteke zerbait badagoela Oikialdean.

Pena da etxe guztiak betetzen ari zaizkigula eta babes ofizialeko etxebizitza eske joan behar ote dugun ere pentsatzen jarri gara. Agian pilotalekua lortzeko sorturiko herri mugimenduaren bidetari ekin beharko diogu, etorkizunean herri plangintza egokia izan dezagun.

ERTZ
informatika

ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako persianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Jose Manuel Gonzalez Aramendi. **Kirol sendagilea**

Kirol medikuntza

Ehiztari eta gudariengandik gatz

Garbi dago agresibitateak, milaka urtean zehar, bizirik irauten lagundu digula. Gure espeziearen existentziatik, ia % 100ean gizon-emakumeok mendi eta haranetan zehar bidaiatu dugu, gure familientzat koba zuloak bilatzen, fruitu eta landareak jasotzen, basurdeak eta usoak harrapatzen, basapiztiei aurre egiten. Gure bizitzak potentzia fisikoaren, trebetasunaren eta talde lanaren menpe egon dira.

Adimena, besteak beste, tresnak egiteko erabili dugu. Ehizatze eta arrantza egiteko, lurra lantze eta defendatzeko erremintak egiteko. Tresna horiek bizitza erraztu digute, bizitza seguruagoa eta erosoagoa bihurtu dute. Orain arte hala izan da, baina gaur egun tresna horiek mundu guztiaren bizitza arriskuan jartzen dute.

Nerabeek, bereziki mutilek, betidanik beraien indarra eta adorea erakutsi behar izan dute. Handiekin ehizatza joatea edo borroka egitea adore eta gizentasunaren proba izan dira.

Kirol proba batzuek ahaztutako ehizaldi eta antzinako gudekin lotura handia daukate. Horregatik, gure agresibitatea deskargatzeko eta gure ehiztari eta gudari indarra botatzeko erabil ditzakegu. Gogora dezagun, adibidez, nola egiten zituzten kirol lehiaketak antzinako Grezian, orain dela 3.500 urte. Hasierako Joko Olimpikoetan, Jokoak irauten zuten bitartean, hiri-estatuaren arteko liskarrak bertan behera uzten ziren.

Jokoak gudak baino inportanteagoak ziren.

Beharbada, etorkizun utopiko batean, norgehiagokak eta liskarrak jokoan bidez erabakiko dira.



Ihintz Linazisoro.

Sexualitatea

Zeloak

Zeloak sarritan maitasun adierazletzat hartuak izan dira. Baina zeloak bikotekidearen fideltasun sexualaren gaineko etengabeko susmoa baino ez dira, eta horrek bi gauza adierazten dizkigu: alde batetik, gehiegizko jabetza nahia; bestetik, norbere buruarekiko ziurtasun pertsonalik eza (beste norbaitek "eramango" duen beldurra nagusitzen da).

Jabetza nahi horrek bikotekidea, batik bat emakumea (gizonak jeloskorragoak baitira), objektutzat gorde daitekeen jabetza balitz bezala ulertzea dakar.

Nekazaritzaren garapenak jabetza ekarri zuen eta lurra, tresneria, abereak eta emakumeak gizonezkoen jabetzarako bihurtu ziren. Horren ondorioz, emakumea menpean gelditu zen, bai ekonomikoki, bai sexualki. Horregatik esan dugu gizonak jeloskorragoak direla, historikoki gizarte honetan ezarri zaien rol eta eskema sozialarekin hertsiki erlazionatuta baitago. Gaur egun, ordea, gero eta emakume gehiagok lan egin eta gure nahi sexualak adierazten ditugu. Horrek guztiak orain arte gizonentzat kontrolagarriagoa zena kontrolaezin bilakatu du.

Zeloak, beraz, norberaren ziurtasun eza uzten dute agerian, eta bikotekideak uzteko beldurra gehiegizko bihurtzen dute. Zeloaren ondorioz egoera kontrolatu nahi da, eta baita uneoro bikotekidea non dagoen kontrolatu ere. "Zenbat ordu lo egin dituen, norberarekin ez dagoenean norekin dagoen eta zer egiten ari den, lagunekin egoten denean nola egoten den hain berandu arte, zeri buruz hitz egiten duten...". Horrek askotan egoera surrealista sortzen ditu, eta ez soilik bikoteari eragiten diotenak, baita ingurukoei ere.

Azkenean beldurra susmo bihurtzen da eta susmoa ziurtasun, azkenean ziur dago beste norbaitekin dabilela. Bukaerarako, ordea, jeloskorari sarritan dena gaizki ateratzen zaio, izan ere, egoera kontrolatu nahi horrekin bikoteari elkarbizitza jasangaitz eta itogarri bihurtzen baita. Hemendik etorriko dira haserreak, eta baita bikote banaketak ere. Ez beste norbait dagoelako, baizik eta inork ez dugulako nahi momentu oro kontrolatuak izatea.

Beraz, badakizu, bikotekideari konfiantza guztia eman, beldurra eta obsesioak alde batera utzi eta bizi, maitatu eta gozatu lasai. Bizitza motza da-eta.





Beñat Fernandez de Arroyabe. Sukaldaria

Sukaldaritzako

Onddo salteatuak, urdaiazpiko eta otarrainxkekin

- **Osagaiak** (lau lagunentzat):
 - Onddoak: 400 gr.
 - Otarrainxka zurituak: 300 gr.
 - Jabugo urdaiazpikoa (zerrendetan moztuta): 100 gr.
 - 2 baratxuri ale.
 - Koilarakada 1 perrexil txikitu.
 - 3 koilarakada haragi zuku.
 - 3 koilarakada olio.
 - Gatz.

• Nola egin:

Jarri su ertainean paela. Bota olio eta baratxuri txikituak. Gorritutakoan, bota onddoak, orritan moztuta eta utzi lau minutu. Denbora hori pasatutakoan, bota otarrainxka zurituak eta urdaiazpiko zerrendak. Bota behar adina gatz, eta gehitu haragi zukua eta bota gainetik perrexila. Utzi beste hiru minutu sutan.

On egin.

Lanpostuak

Donostiako enpresa batek **delineatzailea** behar du **(61797/1 eskaintza)**.

• Baldintzak:

AutoCadaren ezaguera handiak.
Photoshop eta CorelDraw programen ezaguera ertainak.

Planoak interpretatzen jakitea

A1, A2 edo B1 gidabaimena.

Urtebeteko esperientzia.

18 eta 50 urte bitartekoa.

• Eskaintzen da:

2 urteko lan kontratua

3.300.000 pezetako ordainsari gordina.

Azpeitia eta Azkoitia Eusko Jaurlaritzarentzat azterketa soziologikoa egiteko **inkestatzailea** behar da **(61239/3 eskaintza)**.

• Baldintzak:

25 urtetik beherako izatea.

• Eskaintzen da:

Hilabeteko lan kontratua.

50.000 pezetako ordainsaria gehi joan-etorrietarako dirua.

Azkoitiko enpresa batek **delineatzaileen burua** behar du **(56779/4 eskaintza)**.

• Baldintzak:

3 urteko esperientzia.

25 eta 55 urte bitartekoa.

Beharrezkoa da bulego proiektuetan arduradun lanetan esperientzia.

Urola Kosta eskualdean bizitzea.

B1 gida baimena.

• Eskaintzen da:

Lan kontratu mugagabea.

4.400.000 pezetako ordainsari gordina.

Eskaintza hauetako bat interesgarri gertatzen bazaizu eta lortzeko aukera egin nahi baduzu, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzia eta hautagai moduan sartua izatea eskatu Zumaia Institutoko Langaiko arduradunari (943-860809 edo 943-860810)



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A



Jaime Osa zumaiar onena Zakila Biran

Jaime Osa kirolari zumaiarra izan da aurtengo Zakila Bira kros herrikoian zumaiar onena. Ez da saria etxera eramaten duen lehen aldia, aurreko urtean ere bera izan baitzen helmuga puntuan lehen zumaiarra. Badirudi, hala ere, konpetentzia areagotu egingo dela, bigarren zumaiar postuan heldu zen Paulo Agirrezabalagarekiko abantaila nahiko txikia izan baita aurtengoan, 24 segundo besterik ez. Baliteke, gauzak orain bezala joan izanez gero, lehia handitzea zumaiarren artean.

Hilaren 6an korritu zen bosgarren Zakila Bira. Partaidetza handia izan da aurtengoan. Aurrekoan baino ia ehun korrikalari gehiagok hartu dute parte. Jakina denez, Zakila Birak 20 kilometroko ditu. Zumaiaatik irten eta Zumaian amaitzen da. Tartean, Narrondo, Arroa, Iraeta, Aizarnazabal, Muniosoro, Oikia eta Bedua.

Eguraldi iluna, lainotua izan zuten parte hartzaileek. Lasterka egiteko aproposa. Proba hasteko ordu erdi falta zela sekulako euri zaparrada bota zuten. Ikustekoak ziren antolatzaileen aurpegiak. Hala ere, tanta batzuk izan

ezik, eguraldia lagun izan zuten korrikalariak probak iraun zuen bitartean.

Xalbador Agirrezabalaga atleta beteranoak eman zion irteera krosari. Bera izan da aurtengo honetan omendua. Bere esanetan, forman aurkitzen denez, probari hasiera emateaz gain, lasterketan parte hartu nahi izan zuen. Muniosorotik Zumaiaarako bidea egin zuen soinean 1 zenbakia zuela.

Irabazleei dagokionez, gizonezkoen proban, Pedro Muñoz azkoitiarra izan zen aurtengo Zakila Biraren irabazlea, 1:07:30 denborarekin. Bigarren postuan aurreko urtean irabazle izan zen Gontzal Cuadrado sailkatu zen eta hirugarren Ricardo Velea. Emakumezkoen lasterketan, berriz, Josune Tercero donostiarra izan zen helmugara heltzen lehena, 1:21:21 denborarekin. Bigarren, Maria Jesus Silvano donostiarra sailkatu zen, eta hirugarren, Ixiar Urdangarin hernaniarra. Beteranoetan, berriz, lehenak Jokin Arrinda abadiñoarra eta Aizarnazabalgo Begoña Salaberria izan ziren.

Zumaiarren artean Jaime Osa izan zen lehena 1:10:59 denborarekin. Bigarren Paulo Agirrezabalaga eta hirugarren Jesus Mari Alvaro. Beterano mailan Jesus Mari Arrona izan zen lehen zumaiarra, eta bigarren Julian Igual. Emakumezko zumaiarrik ez zen izan lasterketan.

Elbarrituek ere hartu zuten parte Zakila Biran. Hiru izan ziren gurgil-aulkietan atera ziren atletak. Horietatik bi, Iparraldeko Pette Noblia eta Pier Miura, elkarrekin heldu ziren helmugara, baina lehenak eraman etxera irabazlearen txapela 1:07:40 denborarekin. Hirugarren Lontxo Esnaola oriotarra sailkatu zen.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

Gizonezkoa

1	Pedro Muñoz	1:07:30
2	Gontzal Cuadrado	1:07:37
3	Ricardo Velea	1:07:43
4	Xabin Aranaga	1:08:10
5	Xabier Iturralde	1:09:44
6	Anartz Etxeberria	1:09:54
7	Alberto Suarez	1:10:15
8	Ion Aranzabal	1:10:19
9	Jaime Osa	1:10:59
10	Paulo Agirrezabalaga	1:10:19

Zumaiarrak

1	Jaime Osa	1:10:59
2	Paulo Agirrezabalaga	1:10:19
3	Jesus Mari Alvaro	1:15:38
4	Felipe Agirre	1:15:48
5	Jesus Mari Arrona	1:16:05
6	Jon Sasiain	1:16:30
7	Alberto Gorritiberea	1:19:50
8	Julian Igual	1:20:31
9	Martxelo Santamaria	1:22:03
10	Peio Santamaria	1:22:03
11	Iñigo Etxaniz	1:22:14
12	Xabier Laskibar	1:23:06
13	Xabier Ureta	1:23:48
14	Juan Ignacio Alkorta	1:23:59
15	Jon Ulazia	1:26:27
16	Vicente Villar	1:26:53
17	Karlos del Pilar	1:27:41
18	Aser Martin	1:29:39
19	Juan Ignacio Zarrabeitia	1:35:24
20	Alberto Martikorena	1:37:39
21	Jose Luis Alberdi	1:38:09
22	Jose Agustin Zumeaga	1:40:21
23	Jon Manterola	1:43:57
24	Garikoitz	1:43:58

Emakumezkoa

1	Josune Tercero	1:21:21
2	Maria Jesus Silvano	1:26:03
3	Ixiar Urdangarin	1:26:05
4	Maria Pilar Arriola	1:29:18
5	Agurtzane Auzmendi	1:33:28
6	Sonia Muñoz	1:35:01
7	Belen Dominguez	1:35:54
8	Begoña Salaberria	1:36:16
9	Itziar Gomez	1:44:00
10	Olatz Gabarain	1:50:43
11	Izaskun Etxeberria	1:53:37

Ezinduak

1	Pette Noblia	1:07:40
2	Pier Miura	1:07:40
3	Lontxo Esnaola	1:20:19



Goitik behera:

Jaime Osa, lehen zumaiarra.
Xalbador Agirrezabalaga, aurtengo
atleta omendua eta Fran Aizpurua.
Pedro Muñoz gizonezkoen mailan
irabazlea.



Zumaia, paradisua

Aspaldi batean eskopeta utzi eta argazki kamara hartu zuenetik, Zumaia baxter eta txori gehienak bildu ahal izan ditu bere zorrora Aitor Leizak. Material horrekin hitzaldia eskaini zuen Hegaztien Nazioarteko Egunean, eta Zumaia Natur Taldeak irteera ere antolatu zuen. Naturaz gozatzen dakienarentzat Zumaia paradisua dela dio Aitorrek eta guk gustura entzun diogu.

"Euskal Herrian desagertzeko zorian dauden bi ekosistema dauzkagu hemen", dio Aitorrek. "Batetik, padura. Kostaldeko herri gehienak paduren gainean eraiki dira (Donostia, Pasaia, Zarautz, Zumaia bera eta abar)

eta azken urteotako kirol portuen zabalkundearekin gelditzen ziren azken erreserbak ere estali dituzte. Bestetik, dunak. Gipuzkoan Zarauzkoak eta Zumaia-koak bakarrik dauzkagu", jarraitu du. "Artadia penintsulan ekialdera aurki daitezkeen azkenekoa da, eta Beduan dagoen pagadia hemen inguruan itsas mailan aurki daitezkeen bakarra da", dio.

Itsasertza, itsas labarra, ibaia, padura, dunak, basoak, mendiak... Europan batetik bestera distantzia luzeetara aurkitzen diren ekosistema ugari hemen elkarren ondoan aurki ditzakegu bertako ezaugarri geografiko eta klimatikoei esker. "Jendea ez dakit oso kontzientea den, baina zorte handia daukagu, zer ikusi eta zer ikasi asko dago hemen inguruetan", dio Aitorrek.

Eskopeta sorbaldan zeramala ezagutu zituen baxter hauek, duela hamar bat urte, 'instrumentua' aldatzea erabaki zuen arte. "70*210 bat sartu zen etxean, eta haretxekin hasi nintzen froga batzuk egiten. Gero duplikadorea erosi nuen, teleskopioa... eta eskopeta alde batera utzi nuen" kontatzen du.

Ehiztari garai haiek oinarritzko ezagutza eman zioten eta hegaztien-ganako zaletasuna markatu. "Urtaro bakoitzak bere fruituak eskaintzen ditu. Udaran, esaterako, itsasora joaten naiz asko, eta udaberrian landarediari ateratzen dizkiot argazkiak, baina gehiena hegaztiak gustatzen zaizkit", dio.

Zumaian ehunetik gora espezie



AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

AITA MARI

kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia

ATERPE

OPARIAK ETA DEKORAZIOA

Erribera kalea, 6
Telefonoa: 943 86 53 87
30750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

omen daude eta gehienak ere harrapatu ditu bere kamerarekin. "Irteten dudan bakoitzean eramaten dut kamera, baina naturaz gozatzea garrantzitsuagoa da niretzat argazkia ateratzea baino. Parean tokatuaz gero bakarrik ateratzen ditut argazkiak eta gordelekuan tapatuta itxaroten orduak pasatzea, apeua (erreklamo) erabiltzea eta horrelakoak burugogorkeria puntualetan bakarrik egin izan ditut", dio.

Europar batetik bestera distantzia luzeetara aurkitzen diren ekosistema ugari hemen elkarren ondoan aurki ditzakegu

Martin arrantzalea, arrano arrantzalea eta belatza iruditzen zaizkio hemen inguruan ikus daitezkeen politenak. "Martin arrantzalea oso luzitua da, kolore bizi-biziekin. Arrano arrantzalea Beduan dabil egun hauetan, eta oso ikusgarria da buruz sartzen baita arrantzara. Belatzak ere bi bikote daude hemen inguruan...", komentatu digu.

Bitxikeria bat baino gehiago ere topatu ahal izan du urte hauetan guztietan. "Joan den urtean txirritxo doratu txiki bat azaldu zen herrian, Kantaurre itsasoan lehenengo aldiz, eta baita pelikano bat ere", dio. "Horrelakoak azaltzen direnean SEOn (Sociedad Española de Ornitología) Bitxikeria Komisiara bidaltzen dugu materiala eta haiek homologatu egiten dute" kontatzen du.

Berak ere badauka informatzaile sarea. "Jendeak badaki txoriei argazkiak ateratzen dizkiedala eta

zerbait ikusten duenak komentatu egiten dit kalean", dio. Eta berak ere, SEOak bezala, filtroa pasa behar izaten du. "Esaten badidate kolibri bat ikusi dutela, badakit esfinge tximeleta batekin nahastu dutela, edo hondartzan pinguino bat dabilela komentatzen badidate badakit pottorra izango dela... nork eta zer esaten didan kontuan hartu behar izaten dut kasu egin aurretik", kontatu digu.

Urte hauetan guztietan argazki mordoa atera du, ehunka batzuk, Zumaian, Euskal Herrian zehar, eta baita Euskal Herritik kanpo ere. Eta ez du bat bera ere bota. "Argazki bakoitzak bere historia dauka. Noiz, non, nola eta abar. Eta batik bat lehen urtetakoak kalitatez txarragoak badira ere, pena ematen dit botatzeak", dio Aitorrek.



Hegaztiak nola bereizi

Izenburu hori ezarri zion urriaren 4an iluntzeko 10etan ihintza tabernan eman zuen hitzaldiari. "Asteburuan Txorien Nazioarteko Eguna zen Europa osoan. Joan den urtean Natur Taldekook ekintza bat antolatu genuen egun honetarako eta aurten ere jarraipena eman nahi izan diogu", kontatu digu Aitorrek.

Hitzaldian hegaztien migrazioari eskaini zion lehen zatia eta hegaztiak identifikatzeko gida praktikoko moduko bat azaldu zuen ondoren. Guztia ere ordubetea eta 115 diapositibarekin lagunduta.

Migrazioarena orain garaia delako aukeratu zuen, eta hegaztien identifikazioarena, berriz, jendeak gaia oso gutxi kontrolatzen duela iruditzen zaiolako. "Jende gehienari hegazti guztiak antzekoak edo berdinak iruditzen zaizkio. Izenez bospasei

Endaño Zumaia

TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

Xanti
ALTZARIAK
S.L.

Mota guztietako altzariak
Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

TOMAS TABERNA
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

espezie ezagutzen dira, baina bistaz usoa, eperra, galeperra eta oilaskoa... platerean ikusten dituenak", kexatu da. Bere ustez, lehen oinarria osatzeko parametro batzuk (adibidez, tamaina) eta erreferentziazko espezie batzuk (adibidez, patxizaharra, zozoa, usoa) ikasi behar dira, horietatik abiatuta espezie gehiago identifikatzeko (patxizaharra baino handiagoa eta zozoa baino txikiagoa, mokoa...). Lan horretan merkatuan dauden gidak oso praktikoak direla dio. "Guztiek antolaketa berdina dute eta oso erraz topatzen da identifikatu nahi dugun hegaztia", ziurtatu du Aitorrek.

Ihintzako hitzaldia arrakastatsua izan zen, bai entzuleen kopuru aldetik eta baita parte hartzeagatik ere, baina Natur Taldeak larunbat goizean Irungo Plaiaundi parke ornitologikora antolatutako irteerara lau lagun baino ez ziren azaldu. "Egia da urte batzuetatik hona horrelako irteerara etortzen den jende kopuruak behera egin duela. Garai batean 30 bat lagun baginen, egun batean batzuk, bestean besteak, etxetik propio hegaztiak



ikustera irteten ginenak, eta orain erdiak ere ez gara izango", aitortu du.

Hala ere, ba omen dago baikortasunerako daturik. "Jendearen ezagutza mailak ez du gora egin baina, oro har, sentsibilitate handiagoa nabari da azken aldian", dio. Eskoletan egiten den lana ezinbestekotzat jotzen du alor honetan. "Herrian eskuera- eskuera dago ikasteko materiala eta

nik uste hasi direla gauzak egiten. Izan ere, ingurunea babesteko modu eraginkorra jendeari ingurune hori ezagutzera ematea da. Ezagutzen duzuna hondatzeak min gehiago egiten du ezagutzen ez duzuna hondatzeak baino", dio.

Natur Taldea ere saiatzen da hitzaldi, irteera eta abarren bidez jendeari bere ingurunearen berri ematen, baina bestelako neurriak ere eskatzen dituzte. "Udalari behin eta berriro eskatu diogu Zuloaga atzeko bidea jendeari ixteko. Kirol Portuarekin espezie askok alde egin behar izan dute Zumaiaetik, ez dira Beduara aldatu, gainera, eta utzi duten pusketa hori babesten ez baldin bada laster batere gabe gelditu gaitezke. Jendea paseatzen, txakurrekin eta abar hortik ibiltzen bada hegaztiak alde egingo dute", dio Aitorrek.

Ea, bada, herrian dauzkagun paradisu txiki hauei eusteko gai garen.



OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

NARRONDOS
TABERNA

Goizeko 5:30etatik
astelehenetik larunbatera
PINTXO eta OGITARTEKOAK
TEL: 943 86 24 90

AR Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatu + Asegurak
Finke Administrazioak

bonin aguirre 4. behea
20.750 zumala (gipluzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel: 943 862651
Fax: 943 862746

Fitxa-teknikoa

Izenburua: Jack Lemmon nunca cenó aquí

Idazlea: Diego Galán

Argitaletxea: Plaza y Janés

Urtea: 2001



Zinemaldiko kronikak

Donostiako Zinemaldia jarraitu duen edonork badaki zenbateko zorra dion Diego Galani. Bera izan zen erdi hilda zegoen zinemaldia hartu eta oraingo egoera osasuntsura eraman zuena. 2000. urteko ekitaldiaren ondoren agur esan zion Galanek Donostiako Zinemaldiari. Dimisioa gauzatu eta berehala zinemaldiari buruzko liburua idatziko zuela agindu zuen. Hitza bete du Galanek eta jada eskutan dugu liburua. Aurkezpena orain gutxi amaitu den Zinemaldiko 49. ekitaldian egin zuen, eta emaitza benetan bikaina da.

Mila eta bat anekdota, gertakizun kontatzen dizkigu Galanek. Zinema kritiko zen garaian hasten du kontakizuna Donostia bihotz-bihotzean duen zinemazale honek. Zaharkituta zegoen jaialdia berri eta dinamikoa bihurtu nahia, politikoein izandako liskarrak, aktore eta zuzendarien kapritxoak, kazetariak esandako gezurrak, donostiar burgesiak monopolizatutako jaialdia izatetik oraingo zinemaldi arrakastatsua izatera pasa zenekoa. Tarte berezia egin dio Galanek Bette Davis aktore mitikoari. Hilzorian zela sekulako indarra eta duintasuna erakutsi zuen Davisek eta hori ezin izan du ahaztu Galanek.

13 urteko kronika idatzi du Diego Galanek. Jaialdiaren barrunbean sartzan gaitu estilo irakurterraz batekin. Barre egiteko aukera ematen digu, eta baita hunkitzeko ere. Zinema maite duen pertsona orok irakur beharko lukeen liburua.

A! liburuaren izenburuarekin Galanek zer esan nahi duen galdetzen baduzue, erantzuna oso erraza da: Diego Galanek behin eta berriro gonbidatu zuen Jack Lemmon Donostiako Zinemaldira, eta horrek, gonbiteari ezezkua eman zion, beti ere erantzun berbera emanaz, "agian datorren urtean". Jack Lemmon hil zen, ez du inoiz Donostian afalduko.

ZINE FORUM



Urriak 25, osteguna
Memento

Zuz: Christopher Nolan

Akt: Guy Pearce, Carrie-Anne Moss

Denboraldiari pelikula dramatiko batekin hasera eman ondoren, thriller txundigarri baten txanda izango da urriaren 25ean Aita Mari zinean. Aurrez egindako ezeren antzik ez duen pelikula da *Memento*. Zine guztia bezala imajinario aldetik krisi larrian dagoen jenero honek, thrillerrak, ba zuen bai halako filma baten beharra. *Memento*, bai itxura bai kontatzen duen istorioaren aldetik pelikula berezia baita.

Christopher Nolan zuzendari eta gidoilariak zuri-beltz eta kolorezko irudiak erabiltzen ditu arazo larri batean bizi den gizon baten gertakizunak kontatzeko. Gizon hau mendeku bila dabil, norbaitek bere emaztea bortxatu eta erail baitu. Kontua da buruan kolpe gogor bat jaso zuela eta bere memoriak 15 minutuko iraupena besterik ez duela. Hori dela-eta, dituen pentsakizun guztiak paperean idatzi behar ditu edo tatuaien bitartez gorputzean itsatsi.

Hainbat zinemalditan saritua izan den pelikula honetan antzezle nagusiak *L.A. Confidential* eta *Las aventuras de Priscilla* bezalako filmetan buru izan den Guy Pearce australiarra eta *Matrix* arrakastatsuan neska sentsualaren papera betetzen zuen Carrie-Anne Moss modelo ohia dira.

Etengabeko flash-backen bitartez ikusleak istorioaren berri izango du. Gomendagarria da kontatzen denari adi egotea, informazio txikiena galduz gero, posible baita haria guztiz galtzea. Kontuak kontu, esan bezala, pelikula txundigarria eta harrigarria.

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ODONTOLOGIA PROTESIS DENTAL
CLINICA DENTAL ZUMAITA HORTZ KLINIKA

Plazuela de los Pueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Inaundegi Elgoibar

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
/elekttrizitatea, s.l.
TELKOMUNIKAZIOAK
Errilbera kalea 18 Behe TF/Fax: 943 143097
20.750 Zumaiak ekin@ekinl.com
Instalazioak/banatuak ofizialak

CANAL+ Vía CANAL DIGITAL

Telebés
Movistar
Movistar

urria agenda



30

urriak 30-azaroak 4
Oxforden

**TXOKOLARTE
ELKARTEAREN
MARGULA
MARGOTU**
Urriaren 30etik
azaroaren 4ra
Txokolarate elkar-
tearen "Margula

Margotu" proposamena izango dugu Oxford aretoan. Erakusketa honek Izaera parte hartzaile eta jostaria du. Nork ez du izan bere eskuetan margotzeko liburuxka bat? Lan hau ideia horretan oinarritzen da eta bide batez hiru oinarritzko helburu betetzen dira: grafika zer den ezagutarazi, artistaren irudia eta artelanaren autoria desmitifikatu eta norberaren sormena garatu. Erakusketa esperimentazio tailerra izango da: artelan seriatua eraldatu/margotuko da eta artelan bakar bihurtuko da.

ARGAZKI AUKERAKETA 2001

Udal Kultur eta Turismo Batzordeak deialdia egiten die herriko argazkizaleei, kultur eta turismo argitalpenetan erabili ahal izateko argazkiak eskuratzeko asmoa dela-eta. Gaur egungo argazkiak izan beharko dute eta herriko nahiz auzoetako paisaiak, ekitaldiak, txokoak, une bereziak, etab. jaso beharko dituzte. Zaletu bakoitzak gehienez 20 argazki aurkez ditzake, koloretako diapositibaren formatuan. Argazki bakoitzarengatik 5.000 pezeta ordainduko dira. Argazkiak Foronda kultur etxean aurkeztuko dira, **abenduaren 11** baino lehen.

26

26-28

**URRIAK 26TIK
28RA, ASTEBURU
MIKOLOGIKOA.**
Aurtengoan ere

Zumaiako Natur Taldeak asteburu mikologikoa antolatu du. **Urriaren 26an, 19:00etan, Oxforden** eskainiko den hitzaldi baten bidez emango zaio hasera aurtengo asteburuari. Inaxio Manterolak jorratuko duen gaia mikozeria izango da. Jarraian, hitzaldian izan direnek herriko tabernariak prestatutako pintxoak dastatuko dituzte. **Larunbatean, goizeko 8etan**, perretxikoak biltzera joateko irteera izango da, eta arratsaldeko 16:00etan bildutako perretxikoak sailkatuko dira, Odieta pilotalekuan. Asteburu mikologikoari amaiera emateko, **igandean, hilak 28, erakusketa** izango da pilota-lekuan.

20

larunbata

**19:30etan
Aita Marin**

**BEHEKO PLAZA
eta CORAL POLA DE
SIERO**
abesbatzen
kontzertua

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



ALGORRI TABERNA
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAI 943 862543

ERROTA
OPIL-OKINDEGI



LABEA: Santixo auzoa, 36
Tel. 860000
Erribera, 2 Tel.143001

dekorazioa
ALBERDI



• Eskaiola
• Pladur-a

943 726188
943 143261

JATETXEA
LU BAKI



Basoli Auzotza, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAI



ZE ITZU FIZI L



ETXEZ ET ,
ZUM I
TEL. 1 7

K LEF ZI ET
G SINST L ZI K

ESU UEST KZU ENEU I
EGITEN ITUGU.
ESK EZ ZUZEU E IN L K
K N MEZU IK G E

Zat ta a tu

G SNTU L
UT N
N



Itzurun, S.L.
Aroztegia

Itzurun zuhaitzbidea, 2. beheak
Tel./ Fax: 943 86 15 65
Tel.: 943 86 15 65
20750 Zumaiak

Material guztietako leihoak

nahi diren koloretan eta baita egur imitazioetan ere:
PVC, Poliuretano, Aluminio eta egurrezkoak

Armaru enpotratuak

Tarima ate eta era guztietako pertsianak

Lanen zuzendaritza

bezeroak gustora uztea da gure helburua!